

# **UDALAREN OSOKO BILKURA**

## **2009ko azaroaren 26ko ohiko bilera**

### **BERTARATU DIRENAK**

#### **ALKATE-UDALBURUA**

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO JN.

#### **ZINEGOTZIAK**

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL JN.

EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA AND.

EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI AND.

EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO JN.

EAJ-PNV.- M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZALEZ AND.

EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO JN.

EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA JN.

EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABAETA JN.

EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA AND.

PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.

PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ JN.

PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA AND.

PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO JN.

PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.

PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.

PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.

PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ JN.

PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS JN.

Leioako udaletxean, bi mila eta bederatziko azaroaren hogeita seiko arratsaldeko zazpiak eta hamabost direla, elizate honetako Udalaren Osoko Bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna**, izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundearen Antolaketaaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak azertu dituzte:

## **I.- ERABAKITZEKOAK**

**1.- GIZARTE ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMAREN ADJUDIKAZIOA LUZATZEA:** Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko azaroaren 10eko 440 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Informazio Batzordeak 2009ko azaroaren 4an hartu zuen 87 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Gizarte Zerbitzuen Sailak txostena aurkeztu du; honakoa dio, hitzez hitz:

*“2009ko irailaren 23an, Agintzari Gizarte Ekimenerako Kooperatibak udalerrri honetan haur, gazte eta familiekin gauzatzen duen gizarte eta hezkuntzan esku hartzeko programaren kontratua luzatzeko eskaera egin zuen.*

*Luzapen hori egungo zenbatekoa oinarritzat hartuta proposatu dute: 6 gizarte-hezitzailek 237.845 €ko kostua izan dute 2009an, eta KPIren igoera ere aurreikusi behar da.*

*Luzapenaren eskaera hori administrazio-klausulen agirian agertzen den kontratuaren 2. puntuan (egikaritzea-epea) dakarrenari jarraiki egin dute: “Urte bikoia da kontratu horren iraupena, kontratua sinatzen den egunetik aurrera zenbatuta, baldin eta kontratuko alde bietako batek hiru hilabete arinago amaiera idatziz iragartzen ez badu. Kontratua luzatu ahal izango da, bi aldeek adosten badute, kontratua amaitu baino hiru hil aurrerago kontratistak eskabide idatzia aurkeztuz, eta, horretarako, kontratazio-organo eskudunak beren-beregiko erabakia hartu beharko du. Kontratuaren iraupen osoa ezin izango da lau urte baino gehiagokoa izan”. Baldintza-agiri hori 2006ko azaroan onetsi zen.*

*Orain arte kooperatiba horrek eta udalerrri honi esleitutako langileek Leioan haur, gazte eta familiekin gizarte eta hezkuntzan esku hartzeko egin duten lana oso egokia izan da.*

*Horregatik guztiagatik, kontratua 2010eko abendura arte luzatzea proposatu da.”*

**Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Batzordeak** honakoa egitea egokia dela adierazi du: adjudikazioa 2010eko abenduaren 31ra arte luzatzearen aldeko txostena ematea, eta gai hori Udalaren osoko bilkurak aztertzeko ipintzea, egingo duen hurrengo bileran.

**TOKIKO GOBERNU BATZARRA** aipatutako proposamenaren alde agertu da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak, **aho batez, erabaki du** gizarte eta hezkuntzan esku hartzeko programaren adjudikazioa 2010eko abenduaren 31ra arte luzatzea onetsiko dela, arestian adierazi den bezala.

### **2.- AZAROAREN 25a EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA EGINGO DEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA:**

Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko azaroaren 10eko 442 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Informazio Batzordeak 2009ko azaroaren 4an hartu zuen 91 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Berdinsarea- berdintasunaren aldeko Euskal Herriko udalerrien sareak (Eudel) bidalitako adierazpen instituzionalaren ereduaren berri eman da. Honakoa da:

### AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN EREDUA – EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA

Azaroaren 25a Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna dela-eta, aurten azpimarratu nahi duguna da emakumeenganako indarkeriak ikusten duguna baino adierazpide gehiago dituela. Eta oraingoan ere, jende gaztearengan arreta jarri, eta gure Udalerrian indarkeria sexista jasaten duten neska gazteengan zentratu nahi dugu kanpaina.

Aurtengo kanpainaren leloa hauxe da: BELDUR BARIK. Gazteak, berez, ez dira beldur, baina beldurra izaten ikasten dute; horregatik, baliabideak eman behar dizkiegu eta ahul bihurtzen dituzten ezaugarriak identifikatzen irakatsi. Hori eginez, Indarkeriaren prebentzioan ari gara lanean.

Indarkeria fisikoaz gain, indarkeria sinbolikoa ere kontuan hartu behar dugu: ez da ikusten, baina horren bidez beldurra sortzen da emakumeengan. Indarkeria mota horren bidez, neska gazteek egoera desberdinak bizitzen ikasten dute, emakume izate hutsagatik.

Bai gure udalerrian, bai gainerakoetan, ukatu ezin dugun errealitate bat dago: Zenbat neska gaztek egin dute korrika edo aldatu dira espaloiz, atzetik pausoak entzun eta beldurra sentitu dutelako? Zenbat aldiz irten behar izan dute eremu publiko batetik (taberna bat, metroa), zer erantzun jakin gabe geratu direlako, edo aurrean zeukaten mutilaren erreakzioaren beldur izan direlako? Askotan, gehiegitan, uzten diete neska nerabeek gauzak egiteari, zinemara, hondartzara, mendira, oporretan joateari... gauza horiek bakarrik egitearen beldur direlako. Gure herriko zenbat neska gazte ez ote dira beren bikotearengandik umiliatuta edo kontrolatuta sentitu? Zenbat ez ote dira sentitu, bikoteen presioagatik, modu jakin batean jokatzera behartuta? Zenbat ez ote dira desorientatuta sentitu emakumeek egin behar duten edo ez dutenagatik?

Ezin dugu beste alde batera begiratu: Gaztei baliabideak eman behar dizkiegu, jarrerak eta ekintzak ezagutu, antzeman eta aldatu ahal izateko. Indarkeriaren biktima asko izan dira dagoeneko.

Udalak konpromisoak hartu ditu. Neska gazteei ahultasunari aurre egiteko baliabideak emateko programak garatuko ditu, boterea hartu dezaten errazteko; eta mutil gazteekin ere lan egingo du, jarrera sexisten prebentziorako eta erasoan aurrean jarrera aktiboa hartu dezaten.

Horretaz guztiaz jabetuz, Udalak

KONPROMISOA HARTZEN DU, bere eskumenen atalean eta indarreko legea aplikatuz, udal politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra. Arreta berezia jarri nahi du nerabeen eta gazteenganako indarkerian, horien partehartze aktiboa lagun.

Horretarako, ekimenak jarriko ditu martxan neska gazteei ahultasunari aurre egiteko baliabideak emateko, boterea hartu dezaten errazteko; eta mutil gazteekin ere lan egingo du, jarrera sexisten prebentziorako eta erasoan aurrean jarrera aktiboa hartu dezaten animatzeko.

Bestalde, herritarrei GONBIDAPENA egin nahi diegu, bereziki herriko neska eta mutil gazteei, azaroaren 25ean, hau da, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunean egingo diren jardueretan parte hartzeko.

### MODELO DE DECLARACIÓN 25 - NOVIEMBRE, DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES

Con motivo del 25 de Noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres, este año nos gustaría hacer hincapié en el hecho de que la violencia contra las mujeres tiene más manifestaciones de lo que a veces vemos. Y, de nuevo, nos gustaría poner el foco de atención en la gente joven y centrar la campaña en las jóvenes que sufren las consecuencias de la violencia sexista en nuestro Municipio.

El lema de la campaña de este año es BELDUR BARIK. Las jóvenes no nacen con miedo, sino que aprenden a tener miedo; por eso debemos dotarlas de recursos y ayudarles a identificar lo que las hace vulnerables. Dando este paso, estamos trabajando en el camino de la prevención de la Violencia.

Porque además de en la violencia física, es necesario poner el foco de atención en la violencia simbólica: en aquélla que no se ve pero a través de la cual se construye el miedo en las mujeres. A través de este tipo de violencia las jóvenes aprenden que pueden vivir situaciones diferentes por el mero hecho de ser mujeres.

Tanto en nuestro Municipio como en el resto, existe una realidad que no podemos obviar: ¿cuántas veces cuántas jóvenes han tenido que correr o cambiarse de acera, al escuchar pasos detrás de ellas, porque tenían miedo?; ¿cuántas veces se han visto obligadas a salir de un espacio público (un bar, el metro,) porque se han sentido violentadas sin saber cómo responder o con miedo ante la posible reacción del chico que tenían en frente? En excesivas ocasiones, las adolescentes dejan de hacer cosas, ir al cine, a la playa, al monte, de vacaciones...por miedo de hacerlas solas. ¿Cuántas jóvenes de nuestro pueblo se han sentido humilladas o controladas por su pareja? ¿Cuántas se sienten obligadas a dar determinados pasos o actuar de una manera presionadas por sus parejas? ¿Cuántas se sienten desorientadas por lo que deben o no deben hacer por ser mujeres?

No podemos cerrar los ojos ante esta situación: es necesario dotar a las y los jóvenes de recursos para conocer, reconocer y poder cambiar nuestras actitudes y acciones frente a una violencia que ya se ha cobrado demasiadas víctimas.

El Ayuntamiento se compromete a desarrollar programas que doten a las chicas de los recursos necesarios para hacer frente a su vulnerabilidad y favorezcan su empoderamiento así como a trabajar con los chicos jóvenes para prevenir comportamientos sexistas y animarles a tomar un papel activo ante las agresiones.

Consciente de todo ello, este Ayuntamiento

ASUME EL COMPROMISO de desarrollar, en el ámbito de sus competencias y en aplicación de la legislación vigente, una política municipal activa, integral y coordinada a favor de la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres poniendo especial atención en la violencia contra las jóvenes y adolescentes, contando con la participación activa de éstas.

Para ello, pondrá en marcha iniciativas que doten a las chicas de los recursos necesarios para hacer frente a su vulnerabilidad y favorezcan su empoderamiento, y asume el

compromiso de trabajar con los jóvenes para prevenir comportamientos sexistas y animarles a tomar un papel activo ante las agresiones.

INVITA a la ciudadanía y, de manera muy especial, a las chicas y chicos del municipio a participar activamente en los diferentes actos que se lleven a cabo con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres.

**Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Batzordeak** egoki iritzi dio gai hau udalaren osoko bilkuran eztabaidatzeari.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman du**.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak **aho batez onetsi du** erakundeen adierazpen proposamena, Azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta.

**3.- KONPROMETITU GABEKO DIRUZAINTZAKO GERAKINAREN PENTZURA KREDITUAK ALDARAZTEKO HIRUGARREN ESPEDIENTEA:** Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko azaroaren 24eko 446 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2009ko azaroaren 17an hartu zuen 153. irizpenak honakoa dio:

2009ko ekitaldiko aurrekontuen bilakaera kontuan hartuta, gai horretako legezko aurreikuspenekin bat etorriz, beharrezkoa da kredituak aldarazteko espedientea tramitatzea, udal zerbitzuen beharrianak aurrekontuan hasieran aurreikusitako gastu-aurreikuspenetara egokitzeko.

Hori horrela, Toki Ogasunen testu bategina arautu duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak eta berau garatu duen apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuak hainbat espediente ezartzen dute Aurrekontua garatzen deneko ekitaldiko diru-sarrerara eta gastuetara moldatzeko. Era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoko araudi espezifikoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak eta gainerako foru dekretuek ere kredituak aldarazteko espedienteak aurreikusi dituzte.

### **2009ko DIRUZAINTZAKO GERAKIN LIKIDOAREN PENTZURA KREDITUAK ALDARAZTEKO HIRUGARREN ESPEDIENTEA**

<b>KREDITU-ALDARAZPEN MOTA</b>	<b>KREDITUAREN JATORRIZKO PARTIDA (Diru-sarreraren aurrekontua)</b>	<b>Kredituak</b>	<b>KREDITUAK JASOKO DITUZTEN PARTIDAK (gastuen aurrekontua)</b>	<b>Kreditua</b>
			00500/42000/221.01.00 Energia elektrikoa. Ikastetxeak	12.000,00 €

DIRUZAINZAREN GERAKIN LIKIDOAREN PENTZURAKO KREDITU- GEHIGARRIA	870/01 DIRUZAINZAKO GERAKINA	31.964,74 €	00600/31310/221.01.00 Energia elektrikoa. Jubilatuen Etxeak.	12.000,00 €
			00600/32360/221.01.00 Energia elektrikoa. Familia barneko esku-hartzea	3.500,00 €
			00600/31310/221.00.00 Eraikinak eta bestelako eraikuntzak. Jubilatuen Etxeak.	4.494,74 €
	<b>TOTAL PARTIDA</b>	<b>31.964,74 €</b>		<b>31.964,74 €</b>

Ohiz kanpoko kredituak eta kreditu-gehigarriak onesteko eskumena udalaren osoko bilkurari dagokio, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategineko 177.2 artikuluan eta apirilaren 20ko 500/1990 EDren 37. eta 38. artikuluetan xedatutakoaren arabera, aurrekontuek dituzten izapide eta betekizunei eutsita. Kredituak aldarazteko espediente horiek onesteko quorum berezirik ezarri ez denez, nahikoa izango da aldeko botoen gehiengo sinplea (apirilaren 2ko 7/1985 Legea).

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 15ko 10/2003 Foru Arauaren 34.2 artikulua araberak, aldaketa diruzaintzako gerakin likidoaren kontura finantzatu da.

Aplikagarriak izango dira Foru Arau horren 15, 17 eta 18. artikuluek aipatzen dituzten Aurrekontu Nagusien informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko arauak.

Horren ondorioz, eta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan eta apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuan xedatutakoa zein Leioako Udalaren Aurrekontu Orokorrari buruzko Betearazpen Oinarrietan eta txostenean aipatzen den Foru Araudian ezarritakoa aintzat hartuta, kontu-hartzaileak uste du ez dagoela eragozpenik 2009ko aurrekontuko kredituak aldarazteko 16 zenbakidun espedientea onesteko.

Aurretik aipatu den araudiaren arabera, adierazi behar da, izapidetzeari dagokionez, espediente guztiek Kontu-Hartzailatza Sailaren aurreko txostena behar dutela.

**Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Kredituak aldarazteko hirugarren espedientearen (irizpen honetan adierazitakoa) aldeko irizpena ematea, 2008ko konprometitu gabeko gerakinaren pentzura.
2. Berau onesteari buruzko puntua udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartzea.
- 3.- Espedientea jendaurrean azaltzea 15 eguneko epean eta, horretarako, horri buruzko iragarkia argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauan, Toki Ogasunen testu bategina arautu

duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan eta berau garatzen duen apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuan aurreikusitakoa aintzat hartuta.

**TOKIKO GOBERNU BATZARRA** aipatutako proposamenaren alde agertu da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** kredituak aldarazteko hirugarren espedientea onetsiko dela, konprometitu gabeko gerakin likidoaren pentzura, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazi den bezala.

**4.- HAPN-REN ALDAKETA ZEHATZA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAK 18. ARLOKO (LAMIAKOKO UR ZIKINEN ARAZTEGIAREN AZPIEGITUREN SISTEMA OROKORRA) LURZORUA SAILKATZEARI BURUZ EMANDAKO EPAIA BETETZEKO:** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2009ko azaroaren 24ko 115 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udal Plangintzako Aholku Batzordeak gai horri buruz igorritako txostenaren edukia irakurri da.

“Udalaren Zerbitzu Teknikoek honako inguruabar hauen berri eman dute:

- **21-1-2003:** Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren epaiaren bidez, zati batean onartu da Bilbao Bizkaia Kutzaren ordezkariak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Bertan, Leioako HAPNren (ekainaren 7ko 360/99 Foru Aginduaren bidez behin betiko onetsi zena) 18. arloko lurzorua urbanizagarri gisa sailkatu behar dela adierazi da. Horretarako, aipatutako arauaren zehaztapen guztiak baliogabetu behar dira, baldin eta aurreko erabakiaren kontrakoak badira.
- **4-7-2006:** Auzitegi Nagusiaren epaiak ezetsi egin du aurreko paragrafoan adierazitako epaiaren aurkako kasazio-errekurtsoa.
- **6-3-2009:** Bilbao Bizkaia Kutzak eskatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak autoa igorri du; horren bidez, epaia nahitaez betearazi behar izatea onartu du.

Ondorioz, Leioako Udalak honakoa eskatu du: xedapen judizialak betetzea baimenduko duen espedientea idazteko. Horretarako, 18. arloko lurzorua urbanizagarri gisa sailkatuko da eta aldatu egingo da hasieran HAPNn ezarri zen sailkapena, urbanizaezina zela esaten zuena. Gainerako hirigintza-parametroak ez dira aldatuko.

Udal Plangintzako Aholku Batzordeak, adierazitako aurrekariak ikusita, aipatutako espedientearen aldeko txostena eman du, bertaratutakoen aho batez, udalaren osoko bilkurara igor dadin, hasieran onesteko.”

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Udal Plangintzako Aholku Batzordeak hartutako irizpena osorik onartzea.

- Osoko bilkuraren erabakiaren bidez hasieran onestea aipatutako plangintzaren aldaketa.
- Hasieran onetsi ondoren, espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean; horretarako, BAO n eta egunkarietan iragarkiak argitaratuko dira.
- Espediente honek epai judizial baten edukia bete besterik egiten ez badu ere, eta, beraz, herritarren partaidetzarako programa betetzea beharrezkotzat jotzen ez den arren, baldintza hori beteko da. Horretarako, espedienteari buruzko artikululaburpena sartuko da udal-aldizkarian. Aldizkari hori herritarren postontzietan sartuko da jendaurrean azaltzeko epean.

### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez onetsi du** HAPNren aldaketa zehatza, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 18. arloko lurzoruaren sailkapenari buruz (Azpiegituren Sistema Orokorra, Lamiakoko Ur Lohien Araztegia) emandako epaia betetzeko. Hori guztia, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

**5.- 6.2. ARLOARI (LEIOA MOTOR) BURUZKO HAPN ALDATZEKO ESPEDIENTEA BEHIN BETIKO ONESTEA:** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2009ko azaroaren 24ko 116 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udal Plangintzako Aholku Batzordeak gai horri buruz igorritako txostenaren edukia irakurri da.

“Osoko bilkurak 2008-10-30ean egindako batzarrean hartutako 8. erabakiaren bitartez, hasieran onetsi zen HAPNren 6.2 arloari (Leioa Motor) buruzko aldaketa.

6.2. arloari buruzko aldaketaren helburua da, gaur egun 6.2. arloan Volkswagen eta Seat ibilgailuen erakusketa-, salmenta- eta konponketa-jarduera gauzatzen duen operadoreak zerbitzu hobea eskaintzeko instalazioak handitu nahi dituela-eta egindako adierazpenaren ondorioz, Plan Orokorren 6.2. arloan aldaketa zehatza egitea. Izan ere, egun dauden higiezinak arloko eraikigarritasuna agortu dute, eta hori, Plan Orokorren dakarrenaren arabera, 0,453 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>-koa da. Horretarako idatzi den espedientearen eraikigarritasun-koefizientearen 0,75 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup> arteko igoera eta % 45eko okupazioa aurreikusi da. Egingo diren handitze-lanek Pinosolo pasealekutik ikusten diren eraikinen kanpoko itxura hobetu beharko dute, atzeko fatxaden eta kalera begira dauden fatxaden arkitektura-kalitatea antzekoa izan dadin.

Osoko bilkurak 2009-7-29an hartu zuen erabakiaren bitartez, behin-behinean onetsi zen aipatutako aldaketa. Bertan, honakoa zehaztu zen: *"espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igortzea, dagokion txosten loteslea bidal dezan."*

2009-11-11n (sarrera-erregistroko zk.a: 8974), Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak ziurtagiria igorri zuen. Bertan, honakoa adierazi da:

*"Bizkaiko Hirigintza Plangintzako Atalak azaroaren 5ean egindako 9/2009 bileran, bertaratutakoen aho batez (kideen gehiengo osoa osatu zuten), honako erabakia hartu zen, besteak beste:*

*1.- Ez zaio eragozpenik jarriko Leioa udalerraren "6.2 arloari (Leioa Motor) buruzko Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren aldaketaren" espedienteari. Izan ere,*

*alderdien izaera loteslea da honakoen arabera: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako 4/1990 Legea eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremani buruzko Legea aldatu zuen 5/1993 Legea.”*

Udal Plangintzako Aholku Batzordeak, adierazitako aurrekariak ikusita, aipatutako espedientearen aldeko txostena eman du, bertaratutakoen aho batez, udalaren osoko bilkurara igor dadin, behin betiko onesteko.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak**, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89, 91 eta 104. artikuluetan xedatutakoaren arabera, udalaren osoko bilkurak hurrengo erabakia hartzeari buruzko irizpena eman du:

- 6.2. arloari (Leioa Motor) buruzko Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren aldaketa behin betiko onestea.
- Plan orokorra onetsi eta 10 laneguneko epean, gehienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari erabakiaren kopia bidaltzea.
- Hori horrela, espedientea behin betiko onetsi eta hiru hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari ale oso bat bidaltzea (administrazio-tramiteetako udal-espedientea eta fase guztietako agiri teknikoak barne), behar bezala bideratuta, paperean; halaber, behin betiko onespeneren agiria bidaltzea, euskarri informatikoan, behar bezala bideratuta, batzorde horrek artxiba dezan.
- Behin betiko onespeneren iragarkia egunkarietan argitaratzea.
- Behin betiko onespenerari buruzko erabakien eta, behintzat, hirigintza-arauen testu osoa BAO-n argitaratzea eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak ale bat Foru Aldundiari bidali dionez, dagokion hirigintza-plana Plangintzaren Euskal Erregistroan dagoeneko sartu dela adieraztea.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** 6.2. arloari buruzko (Leioa Motor) Hiri HAPNren aldaketa zehatza behin betiko onestea, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

## **II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA**

**6.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTAK, 2009.10.22tik 2009.11.18ra.** Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientearen agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatuzeko kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkurak Alkatetza-Udalburutzaren dekretuen eta Tokiko Gobernu Batzarraren akten (espedientean agertzen direnak) berri izan du.

## **7.- PRESAZKO MOZIOAK:**

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Xabier Olabarrieta Arnaiz PPko bozeramaileak aurkeztutako aktan sartutako mozioa (aurrerago aztertuko da) garaiz aurkeztu zen, pasa den astelehenean, eta, zenbait zalantzaren ondoren, idazkari jaunari esan nion Barne Araubideko Batzordeari bidaltzeko, nahiz eta premiazko moztzat ekarriko zelako susmoa neukan.

Hori dela eta, gure taldeak ez du irizpide zehatzik, eta inork premia-izaera sinestarazten badigu, tratatuko dugu, baina aurretiaz esan nahi dut ez gatozela edukiarekin bat.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** euskaraz esandakoaren laburpena:

Pasa den urtean behar ez bezala kobratutako bidesarien itzuleraren gainean ari garenez, nire ustez, gaia aztertzea premiazkoa da eta are premiazkoagoa, krisi-egoera kontuan hartuta; izan ere, ehun eta hirurogeita hamar milioi euro dira, eta kontuan hartu behar da Leioan, ziurrenik, izango direla herritar kaltetuak.

Beste alde batetik, Foru Aldundiaren datorren urteko aurrekontuetan kopuru hori itzultzeko partida ezarri beharko dela uste dugu; horrek premia-izaera justifikatzen du.

Nolanahi ere, labur aipatu nahi dut gaiaren mamia: 2003. urtean, A-8 autobidearen emakida amaitu zen eta Aldundiak ordainsariari eutsi zion, Basauri eta Gipuzkoarekiko mugaketaren arteko tartean.

Auzitegi Nagusiak ordainsari horri buruzko erabakiaren baliogabetasuna adierazi zuen; izan ere, beste azpiegitura batzuk ere finantzatzen zituen, besteak beste, "Supersur" izeneko eraikuntza.

Alderdi Popularrak aurkeztu zion errekurtsioa Aldundiaren ordainsaria ezartzeari buruzko erabakiari, eta arrazoiak eman zitzaion Epaitegietan. Hori dela eta, herritarrei kopuru hori itzultzeko eskatu nahi dugu; horrenbestez, osoko bilkura honi esan nahi diogu Bizkaiko Foru Aldundiari egin beharrekoa egin dezala eskatzeko, behar ez bezala kobratu dena itzultzeko.

Aurkeztutako testua honako da:

**XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jaunak, LEIOAKO UDALEAN ALDERDI POPULARRA UDAL-TALDEAREN BOZERAMAILEA** denak, honako mozioa aurkeztu du, osoko bilkura honetan eztabaidatzeko

### **MOZIOA**

Bizkaiko Batzar Nagusiek abenduaren 12ko 11/2002 Foru Araua onetsi zuten, 2003ko urtarrilaren 10eko BAO n argitaratutakoa. Horren bitartez, A-8 autobiderako bidesaria sortu eta arautu da, Basauriren eta Gipuzkoako mugaren arteko tartean.

Bidesari hori erabat deuseztatu zen Auzitegi Nagusiaren epai irmoaren bidez (Administrazioarekiko Auzietako Sala, 2. atala), 2009ko otsailaren 12ko 3349/2006 kasazio-errekurtsioan.

Bizkaiko Foru Aldundiko arduradunek hainbat eragiketa oker egin dituzte prozedura horien tramitazioan.

Zorionez, auzitegien erabakia eztaba daezina eta adiera bakarrekoa izan da kasu guztietan, eta ondorioa argia izan da: herritarrok urteetan ordaindu dugu A-8ko bidesaria, horretara behartzen gintuen inolako lege-euskarrik gabe.

Hori horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak ordaindutako dirua itzuli behar digu (2003 eta 2007. urteen artean 170 milioi euro) eta 2010eko ekitaldiko aurrekontuetan ezinbesteko esleipena egin behar du.

Horregatik guztiagatik, Alderdi Popularra udal-taldeak honako erabakia aurkeztu dio osoko bilkurari, eztabaida eta onetsi dezan:

Leioako Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu dio neurri egokiak har ditzala, txarto kobratutako bidesariak itzultzeko eta administrazio-prozedurak arintzeko, herritarrei ahalik eta lasterren ordaintzeko.

#### **EZTABAIDA:**

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

PPko ordezkariak azaldutakoak ez nau konbentzitzen; izan ere, batetik, gaur egun itzuleraren kontua ez dago hain argi, Aldundia PPren iritziarekin bat ez datorrelako eta, bestetik, bertan gauden guztiok Bizkaiko Batzar Nagusietan ordezkariak daukagu, eta berori da gai hau eztabaidatzeko leku egokia.

Ez dugu ulertzen Batzar Nagusien eskumenekoa den gai bat zein arrazoiengatik eztabaidatu behar den udalean; bestalde, ez dugu ulertzen udal-gaia Batzar Nagusietan eztabaidatzea.

Beste alde batetik, premiazko izaera justifikatzeko moduko arrazoiaren bat legoke, baldin eta udalari herritarrek horren gaineko eskaerarik egin izan baliote; baina nik ez daukat eskaerarik jaso izanaren berririk.

#### **PRESAZKO MOZIOAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Lehenengo eta behin, azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, mozioaren premiari buruzko bozketa egin da.

Honakoa izan da bozketaren emaitza: **aldeko bederatzi boto**, PSE-EEko sei zinegotzienak eta PPko hiru zinegotzienak; **kontrako hamaika boto**, EAJ-PNVko bederatzi zinegotzienak (EAJ-PNVko Jon Loizaga Cayero jauna bozketaren unean ez da bertan egon), eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotziena. Horrenbestez, udalaren osoko bilkurak gehiengoz erabaki du mozioaren premia **baztertzea**, berau eztabaidatu eta bozkatu behar ez dela erabakiz.

#### **8.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

##### **LEHENENGO ESKAERA:**

**PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo** jaunak esandakoaren laburpena:

Komunikabideetan 2013. urterako Vicrila ixteko argitaratutako iragarkia dela eta, gure taldeak berria ez bai handiz eta tristeziaz jaso du, eta sozialisten taldearen izenean eta enpresarekin dudatan lotura kontuan hartuta, udalaren indar guztien izenean, ordezkari nagusiarekin bilera egiteko eskatu nahi dut eta beste bat Enpresa Batzordearekin, gaiaren gaineko informazioa jasotzeko.

Jakin badakigu ordezkari nagusiak Alkatetzari deitu diola, baina uste dugu zehazki talde politiko guztiei informazioa eman behar zaiela, eta informazioa izan ondoren, horiek komunikatua eman ahalko dute; bestalde, enpresaren eta langileen eskura jarri ahalko da, jarduerak koordinatzeko, edozein administrazioaren aurrean, egoerak ekarriko dituen kalteak leuntzeko.

Badakit Enpresa Batzordeak interesa duela udalarekin egoteko, eta ordezkari nagusiaren komunikatuaren zain nago; hala ere, ez dugu ahaztu behar ekoizpena 2013an ixtea erabakitzen bada, 300 pertsona inguruk kalteak jasango dituztela.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Ez dut uste hau zuk proposatutakoa lantzeko gai-zerrendako punturik egokiena denik; izan ere, Alkatetzarekin zuzeneko elkarrizketa daukazu edo Bozeramaileen Batza biltzeko deia egin dezakezu.

Nolanahi ere, nire ustez gatazkan enpresaren bitartekotza horrek izendatutakoak eramango du eta udalarena Alkatetzari dagokio.

Jarraian, PSE-EEko bozeramaileak eta Alkatetzak beren iritzia eman dituzte, haren asmoaren ulergarritasunaren gainean.

#### **BIGARREN ESKAERA:**

**PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak** esandakoaren laburpena:

Haurreskolaren gainean jardun du; izan ere, atarietan Alkatetzaren bandoak ikusi ditugu, bertako matrikulei buruzkoak, eta aurretik ez da horren gaineko informaziorik eman dagokion batzordean. Gaur egungo Eusko Jaurlaritzak berori irekitzeko tramiteak bizkortu izanaz pozten bagara ere, gure ustez, Hezkuntza Batzordeak horren berri izan behar izan du.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Tramiteak ez dira bizkortu; izan ere, oraindik ez dago Eusko Jaurlaritzak eman beharreko ekonomia-txostena eta, beste alde batetik, eduki juridikoa duen txostena dago, lehen ere bazegoena.

Beste alde batetik, nire ustez, ez dakigu osoko bilkura bere xedeak betetzeko moduan erabiltzen.

#### **LEHENENGO GALDERA:**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** esandakoaren laburpena:

PSE-EEko bozeramaileak aipatutako gaiaz jardun du, eta, Vicilari buruzko berrien gaineko kezka adierazteaz gain eta plantillari eta enpleguari gure laguntza eskaintzeko Alkatetzaren esku jartzeaz gain, honakoa galdetu nahi dugu. Zer berri du udalak Vicilari gertatutakoaz? Enpresarekin harremanetan jarri al da eta horren inguruko urratsik eman al da?

#### **BIGARREN GALDERA:**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Leioan Neutroi Iturriaren Bigarren Egoitza ezartzeaz jardun du, nahiz eta zientzia-instalazio horren egoitza nagusia izatea lortu ezin izan den. Horrek ekonomia-inbertsioa handia ekarriko du eta gogoko genuke udalak honako galdera honi erantzutea: zer ondorio izango du Leioarentzat? Zer daki Alkatetzak gai horren gainean? Nolako eragina izango du hirigintza- eta gizarte-garapenetan? Zein bateragarritasun izango du zientzia-parkearekin?

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Benetan gogoko nuke zerbait kontatu ahal izatea, baina Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak ez digute inolako informaziorik eman horren gainean.

Gaiaren gainean dakigun bakarra da Leioan dagoen erakunde maitagarriak, handiak eta bigarren egoitzaatik hurbil egongo denak –horrekin harreman paregabea daukagu– gaiaren gainean zenbait argibide emateko detailea izan duelako. Informazio hori da, hasiera batean, behintzat, lehenengo harria abenduaren 9an jarriko dela, nahiz eta gonbidatuko gaituzten ez dakigun, ez baitira udalarekin harremanetan jarri.

Edonola ere, antza denez, obrak ez du jarraituko 2010. urtean; orduan, proiektua idatziko da. Horrenbestez, 2011. urtera arte –eta ez urte-hasieran–, ez da “bigarren harria” jarriko.

Azken batean, gaiaren gainean dakiguna komunikabideek eta Leioako herritarra den errektoreak edo errektoreordeak jakinarazi digutena da. Laburbilduz, guri zuzenean emandako informazioa dugunean, zuoi jakinaraziko dizuegu, gogo handiz, bai Bozeramaileen Batzarrean, bai Ekonomia Sustapenaren Batzordean.

Azkenik, Vicila dela-eta, zuzeneko harremana izan dugu zuzendari nagusiarekin eta gaur Joseba Jáureguirekin harremanetan jartzeko izan gara, baina, zenbait arrazoi tarteko, eta Quiron ospitalearen inauguraziora joan behar izan dudalako, ezin izan gara harremanetan jarri.

Eta zortziak direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut jarduneko idazkaria naizen honek.

O.E.  
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,